

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hasi dira Cadreitan Nafarroako AHTaren obrak egiten

Astiz kontseilariak trenbide sarearen Cadreita-Alesbes azpizatiaren lanak ikusteko bisita teknikoa egin du gaur goizean

Viernes, 04 de noviembre de 2011

Nafarroan [Kantauri-Mediterranea trenbide sarearen](#) lehen azpiatala egiteko obrak Cadreitan hasi dira. Proiektua burutzea Nafarroa 2012 Planeko jardura nagusietako bat da, eta duela gutxi [esleitu zitzaion](#) COMSA S.A.U. eta Construcciones Mariezcurrena enpresek osaturiko ABEEari. Azpizatia 8,5 kilometro luze da eta Cadreita eta Alesbes udalerrien artean pasatuko da, AP-15 autobidearekiko paralelo. Azpizati hori Castejón-Iruñerria tartearen parte da.

Hori dela eta, Anai Astiz Sustapen eta Etxebiziza kontseilariak trenbidearen tarte hori egiteko obrak ikusteko bisita teknikoa egin du. Alboan izan ditu Camino Bonafaux Obra Publikoetako zuzendari nagusia, Rafael Fernández obraren zuzendaria eta azpizati horren enpresa eraikitzaileen langile teknikariak.

Astiz kontseilariak obren leku zehatzera joan da prestazio handiko trenaren benetako bidea nondik pasatuko den bertatik egiaztatzeko. Obrak burutzeko ardura duten teknikariek obren garapenaren inguruan emandako azalpen teknikoak ere entzun ditu.

Obraren lehen fasea bideko sasitza kentzean datza, gainerako lanetarako nahitaezko urratsa baita. Bulldozer Komatsu D-65 eta Caterpillar 963



Astiz kontseilaria eta Camino Bonafaux (ezkerretik 3.a eta 4.a), obraren arduradun teknikoekin



Camino Bonafaux (esk.) eta Astiz kontseilaria (esk.) Ramón Fernández obraren buruaren azalpen teknikoak entzuten

atzerakako hondeamakina dira erabiltzen ari diren makinak. Aurreikusitako lanerako ordutegia 8:00etatik 18:30ra artekoa da, eta batez beste 120 langile arituko dira lanean, gehienez 150 langile.

Salgaiak garraiatzean, bideko gutxieneko abiadura 100 km/h izango dela kalkulatu da eta, bidaiariak garraiatzean, gehienezko abiadura 350 km/h izango da. Oinplanoak 6.500 metroko gutxieneko erradioa du, eta altxata 14,5 milareneko gehienezko malda. Sekzio tipoari dagokionez, plataformaren zabalera 14 metrokoa da eta nazioarteko zabalera bide bikoitzeko dago prestatuta (1.435 mm, 4,7 metro ardatzen artean).

Ingurumenean integrazteko neurriei dagokionez, proiektuak ingurumeneko eraginaren adierazpena betetzen du eta sortutako hondakinen tratamendua eta kudeaketa, ibaien sistemen babesa, landareen luraren gaineko geruza berreskuratzea, paisaia edo faunaren pasabideak leheneratzeko tratamenduak bezalako alderdiak jasotzen ditu.

Azpizati hori egiteko ardua 2011ko irailean esleitu zitzaion 29.703.040 euroren truke COMSA S.A.U eta Construcciones Mariezcurrena S.L. enpresek osatutako ABEEri. 42.426.854 euroren lizitazioaren prezioaren % 30eko deskontua da zenbatekoa. Burutzeko epea 28 hilekoa da.